

10/2019 INSTRUKZIOA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, 5/2019 INSTRUKZIOAREN INDARRALDIAREN LUZAPENA ZABALTZEN DUENA, LEHEN MAILAKO ARRETAREN ARLOAN BARRUKO HITZARMENEN KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMEN BARRUAN DAUDEN EDO BEREZKO BALIABIDEAK DITUZTEN OSAKIDETZAKO ASISTENTZIA UNITATEETAN ZERBITZUAK EMATEN DITUEN PERTSONALARI PRODUKTIBITATE-OSAGARRIA APLIKATZEKO IRIZPIDEEN HARIRA.

Zuzendaritza Nagusi honen 8/2019 Instrukzioaren bidez, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren 5/2019 Instrukzioaren indarraldia hilabetez luzatu egin zen, 2019ko urriaren 31ra arte, Osakidetza zenbait erakundek adierazitako beharrei erantzuteko, aipatutako 5/2019 Instrukzioan ezarritako neurrien ezarpenaren ebaluazioa gauzatu arte.

Uztaila eta urria bitartean neurriaren ezarpena lehen aldiz ebaluatu ondoren, beharrezkotzat jotzen da azaroa eta otsaila artean ere hura ebaluatzea. Izan ere, hilabete horietan, eskari asistentzialak bestelako ezaugarriak izan ohi ditu. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da hasierako luzapena 2020ko otsailaren 29ra arte zabaltzea.

Azaldutakoaren ondorioz, eta Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiari dagozkion eskumenez baliatuz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 11 b) artikuluari jarraikiz eta 1991ko uztailaren 21eko Aginduaren 2. artikuluan eta lehenengo azken xedapenean ezarritakoa betez, honako instrukzioa eman da:


INSTRUKZIOA:

Lehena: Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren 5/2019 Instrukzioaren indarraldiaren luzapena zabaldu egin da 2020ko otsailaren 29ra arte, aipatutako 5/2019 Instrukzioan ezarritako neurrien ezarpenaren ebaluazio osatuagoa egiteko asmoz.

Bigarrena: Epealdi horretan, bere osotasunean aplikatuko dira 5/2019 Instrukzioan ezarritako neurriak eta irizpideak, bertan adierazitako moduan.

Hirugarrena: Instrukzio hau web korporatiboan eta Osakidetzaren intranetean argitaratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 30ean



Iz.: JUAN LUIS DIEGO CASALS
OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO
ZUZENDARI NAGUSIA